

[Amgala](#) proiektua, Elorriko Lajwad elkarte, Elorriko institutua eta [Elorriko Txintxirri ikastolaren](#) artean garatzen den elkartasunezko proiektua da. Hauxe da helburu orokorra: **herri saharaiak errefuxiatuen kanpamenduetan pairatzen duen bizimoduaren berri ematea eta gure laguntza eskaintzea**. Proiektuaren helburu orokor honen helburu zehatzak hauexek dira:

- a. Saharaien kultura eta bizi ohiturak ezagutaraztea.
- b. Tindouf-eko saharaien kanpalekuetan dauden errefuxiatuen egoera zein den ezagutzea eta aldarrikapenak ezagutaraztea.
- c. Gure herrian saharaien egoera adierazi eta herritarrak inplikatzeko.

Azken urteetan, kanpalekuetako familiei [ortuak](#) egiten lagundu izan diegu eta ur deposituak berriztatzen ere lagundu dugu. Ikasturte honetan ildo berdinetik jarraituko dugu ahalik eta familia gehienak laguntzeko asmoz. Baina, oraingo honetan, abenduan, Saharaien kanpalekuetara bidaiatuko dugu. **Bidaia azaroaren 29tik abenduaren 7ra** izango da. Bertan beste kultura bat ezagutzeko eta beraien eguneroko bizitzan laguntzeko aukera bikaina. Ikastolatik 20 pertsonako talde bat bidaiatuko dugu kanpalekuetara eta jadanik mailetak ilusioz betetzen hasita gaude.

Ondo dakizuen moduan aipatutako kanpalekutan bizi direnek guztiaren beharra dute eta gure bidaiaren helburuetariko bat guk hemen erraz lortzen duguna beraiei helaraztea ere bada.

Jadanik hainbat material dugu baina momentu honetan kanpalekuetan bisitatuko ditugun eskolentzako materiala behar dugu. **Zuen laguntza eskatzen dugu**, beraz, honako materialak biltzen joan gaitezen:

Eskola materiala:

- Boligrafoak, arkatzak, borragomak
- Margoak,
- Koadernoak (pisua garrantzitsua da bidaiari, beraz, espiraldun koadernorik ez eta tapa gogorra dutenak ez)
- motxilak
- estutxeak
-

Bilketako epea: azaroak 1.

Zuen laguntza eskertuz,

Elorriko Txintxirri Ikastolaren Amgala Taldea



Estimadas familias:

El proyecto Amgala es un proyecto solidario que realizamos conjuntamente la asociación Lajwad, el instituto de Elorrio y la Ikastola Txintxirri de Elorrio. Nuestro objetivo es el siguiente: **dar a conocer las dificultades que padecen el pueblo saharaui en los campos de refugiados y ofrecerles nuestra ayuda.** Dentro de ese objetivo general tenemos otros más concretos, como son:

- a) Dar a conocer la cultura, la forma de vida y las tradiciones saharauis.
- b) Mostrar las condiciones en las que viven en los campamentos de refugiados de Tindouf y cuáles son sus reivindicaciones.
- c) Dar a conocer la situación de los saharauis en nuestro país implicando así a los ciudadanos.

Los últimos años hemos ayudado a muchas familias con la creación de huertos y la renovación de depósitos de agua. Este año seguiremos por esa línea ayudando a más familias con este proyecto. Esta vez, además, viajaremos a los campos de refugiados. **El viaje lo realizaremos del 29 de noviembre al 7 de diciembre**, y confiamos en que será una gran oportunidad de conocer su modo de vida y ayudar en lo posible. Este año será un grupo de 20 personas (profesores y estudiantes) las que viajarán a los campamentos.

Como bien sabéis, aquellos que viven en los campamentos necesitan de todo, así que otro de los objetivos de nuestra visita es hacerles llegar aquello demanden y que aquí nos resulta tan fácil de conseguir.

Aunque ya hayamos juntado algunas cosas, necesitamos material escolar para llevar a las escuelas que vamos a visitar. La petición de **colaboración** que os hacemos es para la recogida del siguiente material:

Material Escolar:

- Bolígrafos, lápices, borragomas...
- Pinturas...
- Cuadernos (el peso es un factor importante en el transporte, por lo tanto preferimos no llevar cuadernos con espirales y tapa dura)
- Mochilas, estuches ...
- ...

El plazo de recogida es hasta el **1 de noviembre**.

Agradecemos vuestra colaboración.

Elorrioko Txintxirri Ikastolaren Amgala Taldea